

# Gure Munduko Albisteak

examina pasatzeko. Lagun gehienak gazteak izan arren, ba zegoen bere ilobekin etorria zen gizon adineko\* bat, hiru- rogei eta hamarretik gorakoa, segur aski.\* Agian berau, bihotzez, denetarik gazteena zatekeen.\*

Gehientsuak mutilak eta gizonezkoak izan ziren, andre eta andereño jator batzuk egon arren. Harrigarriena, hain zuzen ere, hauxe zatekeen, zein andereño guti presentatu den orain arte honelako examinadora, titulu hori, inork behar ukanez\* gero, andereñoek behar ukan arren.

Examinatzera agertu zirenen artean, Miren Jone Azurtzak, *Zeruko Argiaren* zuzendariak, aipatzea merezi duke,\* nik uste; beronek, bere etorreraz Euskaltzaindia holako tituluak emateko ba dela NOR uste duela ederki frogatzen duelako.

Examinatzaileak, aita Patxi Altunaren ezin etorriaz, Alfonso Irigoien euskaltzaina eta Xalbador Garmendia eta Xabier Kintana euskaltzain laguntzaileak izan ziren.

## Euskal irakasle tituluetarako examinak Eibarren

Euskal irakasle titulua ateratzeko, joan den hilabetean, abenduaren 30erako, Euskaltzaindiak examinatzeko dei bat zabaldua zuen; eta egun horrexetan, Eibarren, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak bolondreski\* eta kortesiaz utziriko aretoan, 50 pertsona baino gehiago bildu ziren,